HITZARMENA, GALDAKAOKO UDALAK ETA BIZKAIKO FORU ALDUNDIAK 2024., 2025., 2026. ETA 2027. URTEETARAKO SINATUA, GALDAKAOREN ETA BOLUETAKO METROAREN ARTEAN IRTEERAK GEHITZEKO ETA GALDAKAOREN ETA METRO BILBAOREN ARTEKO ERABILERA OROKORREKO ERREPIDE BIDEZKO BIDAIARIEN GARRAIO PUBLIKO ERREGULARRAREN DEFIZITA KONPENTSATZEKO

BILDU DIRA

Alde batetik, Iñigo Hernando Arriandiaga jauna, GALDAKAOKO UDALEKO alkatea.

Bestetik, Sonia Perez Ezquerra andrea, BIZKAIKO FORU ALDUNDIKO Garraioak, Mugikortasuna eta Turismoa Sustatzeko foru diputatua.

ESKU HARTU DUTE

Lehenengoak, GALDAKAKO UDALEKO alkatea den aldetik eta haren ordezkari gisa.

Bigarrenak, Garraioak, Mugikortasuna eta Turismoa Sustatzeko Saileko foru diputatu gisa, eta ekitaldi honetarako, Bizkaiko Foru Aldundiaren izenean eta haren ordezkari gisa. Horretarako, Foru Gobernuaren Kontseiluak ahalmena du aldez aurretik, 2024ko apirilaren 18an egindako bilkuran hartutako erabakiaren bidez.

CONVENIO PARA REFORZAR EL NÚMERO DE SALIDAS ENTRE GALDAKAO Y METRO BOLUETA Y LA COMPENSACIÓN DEL DÉFICIT EN EL TRANSPORTE PÚBLICO REGULAR DE VIAJEROS POR CARRETERA DE USO GENERAL ENTRE GALDAKAO Y METRO BILBAO SUSCRITO POR EL AYUNTAMIENTO DE GALDAKAO Y LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA PARA LOS AÑOS 2024, 2025, 2026 Y 2027

SE REÚNEN

De una parte, D. Iñigo Hernando Arriandiaga, Alcalde del Excmo. AYUNTAMIENTO DE GALDAKAO.

Y de otra parte, Dña. Sonia Pérez Ezquerra, Diputada Foral de Transportes, Movilidad y Turismo de la Excma. DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA

INTERVIENEN

El primero, en calidad de Alcalde y en representación del Excmo. AYUNTAMIENTO DE GALDAKAO.

La segunda, como Diputada Foral del Departamento de Transportes, Movilidad y Turismo, y para el presente acto en nombre y representación de la Diputación Foral de Bizkaia, para lo cual se encuentra previamente facultada por acuerdo adoptado por el Consejo de Gobierno Foral en la sesión celebrada el día 18 de abril de 2024.

Esku hartzen dutenek elkarri onartu egiten diote behar besteko lege gaitasuna agiri hau egiteko, eta, ondorioz, zera

Las personas intervinientes se reconocen mutuamente capacidad legal suficiente para otorgar el presente documento y a tal efecto

ADIERAZI DUTE

EXPONEN

LEHENENGOA.- EAEko Errepideko Bidaiari Garraioaren martxoaren 18ko 4/2004 Legean ezarritako eskumen-araubidearen arabera, herri barrukoak dira oso-osorik udalerri beraren barruan egiten diren garraioak; gainerako garraioak, berriz, herri arteko garraiotzat jotzen dira.

PRIMERO.- De acuerdo al régimen competencial establecido en la Ley 4/2004, de 18 de marzo, de Transporte de Personas viajeras por Carretera del País Vasco, son urbanos los transporte públicos que transcurren íntegramente dentro del mismo término municipal, teniendo el resto de los transportes la consideración de transporte interurbano.

Beraz, GALDAKAOKO UDALAK bidaiari-garraio erregularra arautzeko eskumena dauka, erabilera orokorreko bidaiari-garraio iraunkorreko zerbitzuaren emakidak emanez, ibilbidea haren lurraldearen barruan egiten duten garraioenak.

Por tanto, el AYUNTAMIENTO DE GALDAKAO, ostenta la competencia para ordenar el transporte regular de personas viajeras mediante el otorgamiento de concesiones de servicio regular de transporte permanente de personas viajeras de uso general que tengan su recorrido dentro de su territorio.

Eta BIZKAIKO FORU ALDUNDIAK bidaiari-garraio erregularra arautzeko eskumena dauka, erabilera orokorreko herri arteko bidaiari-garraio iraunkorreko zerbitzuaren emakidak emanez, ibilbide osoa edo gehiena haren lurraldearen barruan egiten duten garraioenak.

Y la DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA ostenta la competencia para ordenar el transporte regular de personas viajeras mediante el otorgamiento de concesiones de servicio regular interurbano de transporte permanente de personas viajeras de uso general que tengan toda o la mayor parte de su recorrido dentro de su territorio.

BIGARRENA.- Bai Bizkaiko Foru Aldundia bai Galdakaoko Udala jakitun dira, erakunde bakoitzak esleituta dauzkan eskumenen gauzatze soilaz haraindi, errepideko bidaiari-garraio publiko

SEGUNDO.- Tanto la Diputación Foral de Bizkaia como el Ayuntamiento de Galdakao son conscientes de la necesidad de ofrecer, más allá del mero ejercicio de las competencias que cada institución

erregular bat eskaini behar dela, erabiltzaileen eskariak bete ditzakeena.

tenga atribuidas, un servicio de transporte público regular de personas viajeras por carretera que pueda satisfacer las demandas de las personas usuarias.

HIRUGARRENA. A3932 *Galdakao – Metro Bolueta* lineak anezka-zerbitzu bat eskaintzen du, Galdakao udalerria eta Metro Bilbaoren garraio-sarearekin lotzen duena, gaur egun Metro Bilbaoren 5. lineak estaltzen ez duen mugikortasuneko premia bati erantzuteko.

Galdakaoko Udalak eta Bizkaiko Foru Aldundiak bi indargarri ezarri nahi dituzte Galdakaotik Boluetako metrorako A3932 linearen irteeretan, 7:15etik 8:15era, linean dauden saturazio-arazoengatik. Irteera horietan bidaiari kopurua aztertu da, eta horren arabera, lanegun diren astelehenetatik ostiraletara, bidaia bakoitzeko 65 lagun garraiatzen ari dira; horrela, saturazio-arazoak gertatzen ari dira eta bidaiari batzuk autobusa hartu gabe geratu dira.

Horregatik uste da guztiz beharrezkoa dela beste autobus batekin indartzea Galdakotik lanegun diren astelehenetatik ostiraletara 7:15ean eta 8:15ean irteten diren ibilbideak, urte osoan, abuztuan izan ezik.

Linea horrek ematen duen zerbitzua 1. eranskinean dago jasota.

TERCERO. La línea A3932 *Galdakao – Metro Bolueta* ofrece un servicio de lanzadera que sirve para conectar el término municipal de Galdakao con la red de transporte de Metro Bilbao, atendiendo así una necesidad de movilidad actualmente no cubierta por la línea 5 de Metro Bilbao.

El Ayuntamiento de Galdakao y la Diputación Foral de Bizkaia, están interesados en establecer dos refuerzos en las salidas de la citada línea A3932 desde Galdakao de 7:15 h y 8:15 h hasta metro Bolueta debido a problemas de saturación en la línea. Según el análisis de personas viajeras realizados en esas salidas se están transportando, de lunes a viernes laborables, más de 65 personas viajeras por expedición, generándose problemas de saturación y de personas viajeras dejados en tierra.

Es por ello que se considera absolutamente necesario proceder a reforzar con un autobús más las expediciones de 7:15 y 8:15 salida de Galdakao de lunes a viernes laborables durante todo el año excepto en el mes de agosto.

El servicio que presta esta línea es el recogido en el Anexo I.

LAUGARRENA. Helburu horretarako, Bizkaiko Foru Aldundia, Bizkaibus izena duen errepideko bidaiari-garraioaren zerbitzuaren titularra den heinean, zerbitzuaren prestazioa Galdakaotik Metro Bilbaoren Boluetako geltokiraino zabaltzeko moduan dago, horretarako beharrezkoak diren baliabide materialak eta giza baliabideak emanez. Bestalde, Galdakaoko Udala zerbitzu horren prestazioa zabaltzearen kostuaren ehuneko

CUARTO. A tal fin, la Diputación Foral de Bizkaia, como titular del servicio de transporte de personas viajeras por carretera denominado Bizkaibus, está en disposición de reforzar la prestación del servicio desde Galdakao hasta el Metro en la estación de Bolueta, aportando los medios materiales y humanos precisos para ello; y el Ayuntamiento de Galdakao está en disposición de sufragar el cincuenta por cien (50%) del coste efectivo de la

Galdakaoko Udala

berrogeita hamar (% 50) ordaintzeko moduan dago.

Horrenbestez, interes orokorrari lotutako ageriko arrazoiak aintzat hartuta, alegia, baliabide publikoen optimizazioa eta arrazionalizazioa, bi administrazio sinatzaileek beren borondateak eta eskumenak koordinatu nahi dituzte, erabilera orokorreko Galdakao-Boluetako Metroa bidaiari-garraioko linea iraunkor eta erregularraren maiztasuna indartzeko bidea emate aldera, aipatutako auzotegiko erabiltzaileen mugikortasun-premiak bete daitezen.

BOSGARRENA.- 2020ko urtarrilaren 20an, GALDAKAOKO UDALAK eta Bizkaiko Foru Aldundiak Galdakaoren eta Metro Bilbaoren artean errepide bidezko bidaiarien erabilera orokorreko garraio publiko erregularraren defizita konpentsatzeko lehenengo Hitzarmena sinatu zuten. Hitzarmen horren indarraldia 2023ko abenduaren 31n amaitu zen.

Hasierako hitzarmena sinatzea eragin zuten beharrizanak oraindik ere mantentzen direnez eta, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legeak arautPutako hitzarmenen araubide juridikoan xedatutakoa betez, bidezkoa da beste hitzarmen bat sinatzea, zeina gaur egun indarrean dagoen legeriari egokituko zaion eta aipatutako beharrizanei erantzungo dien 2024-2027 aldian.

Hitzarmen hau Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen eremutik kanpo dago, 6. artikuluaren lehenengo apartatuan jasotakoa dela bide.

Onartzeko proposatzen den hitzarmena

ampliación de la prestación de dicho servicio.

Por tanto, en atención a evidentes razones de interés general que se explicitan en la optimización y racionalización de los recursos públicos, ambas Administraciones firmantes pretenden coordinar sus voluntades y competencias con el objeto de reforzar la frecuencia horaria del servicio de la línea de transporte regular permanente de personas viajeras de uso general Galdakao - Metro-Bolueta, de tal forma que se satisfagan las necesidades de movilidad de las personas usuarias.

QUINTO.- Con fecha 28 de enero de 2020 se suscribió entre el AYUNTAMIENTO DE GALDAKAO y la Diputación Foral de Bizkaia el Convenio para la prestación de los servicios y la compensación del déficit en el transporte público regular de personas viajeras por carretera de uso general entre Galdakao y Metro Bilbao, cuya vigencia finalizaba el 31 de diciembre de 2023.

Dado que subsisten las necesidades que fueron objeto del convenio inicial, de acuerdo con lo establecido en el régimen jurídico de los convenios regulado por la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, procede suscribir un nuevo Convenio y que dé respuesta a las necesidades mencionadas durante el periodo 2024-2027.

El presente convenio está excluido del ámbito de aplicación de la Ley 9/2017, de Contratos de Sector Público, en virtud de lo recogido en el apartado primero del artículo 6.

El convenio cuya aprobación se propone es un

administrazio arteko hitzarmen bat da, 40/2015 Legearen 47.2.a) artikuluan jasota dauden horietarikoa.

Horrenbestez, dagozkien esleipenei eta eskumenei jarraiki, bi administrazioek hitzarmen hau sinatzea erabaki dute, ondoko klausulekin bat etorriz.

KLAUSULAK

1. Hitzarmenaren xedea

Hitzarmen honen xedea da bi alderdi sinatzaileen arteko lankidetza-araubidea ezartzea, Galdakaoren eta Boluetako Metroaren artean bidaiarien garraio publikoko zerbitzuaren maiztasuna indartzeko. Horretarako, zerbitzua indartzeko autobus bat jarriko da, Galdakotik irtengo dena, lanegun diren astelehenetatik ostiraletara, 7:15ean eta 8:15ean, urte osoan zehar, abuztuan izan ezik. Zerbitzu hori A3932 (Galdakao-Boluetako Metroa) Bizkaibus linearen bidez eskainiko da, 2024., 2025., 2026. eta 2027. urteetan zehar. Era berean, hitzarmen honen xedea da aipatutako zerbitzua emateagatik Bizkaiko Foru Aldundiari eta Galdakaoko Udalari dagokien ekarpen ekonomikoa ezartzea.

Hitzarmen honetan adostutako zerbitzuaren prestazioa I. eranskinean zehatu da. Linea hori Nerbioi-Arratia-Durangaldea izeneko emakidan barne hartu da.

convenio interadministrativo recogido en el artículo 47.2.a) de la Ley 40/2015.

Por ello, en virtud de las atribuciones y competencias que les corresponden, las Administraciones firmantes han resuelto suscribir el presente convenio con arreglo a las siguientes

CLAÚSULAS

1. Objeto del convenio

El presente convenio tiene por objeto establecer el régimen de colaboración entre las partes firmantes para reforzar la frecuencia horaria de la prestación de los servicios de transporte público de personas viajeras entre Galdakao y Metro-Bolueta, con el establecimiento de un autobús de refuerzo en las expediciones de 7:15 y 8:15 salida de Galdakao de lunes a viernes laborables durante todo el año, excepto en el mes de agosto, que se llevará a cabo mediante la línea de Bizkaibus A3932 Galdakao Metro-Bolueta durante los años 2024, 2025, 2026 y 2027, así como establecer la aportación económica correspondiente al Ayuntamiento de Galdakao y a la Diputación Foral de Bizkaia por la prestación por esta última del citado servicio.

La prestación del servicio acordada en el presente convenio viene determinada en el Anexo I. Se incluye esta línea en la concesión denominada Nerbioi-Arratia-Durangaldea.

2. Alderdiek beren gain hartutako betebehar eta konpromiso ekonomikoak.

Zerbitzua indartzeak dakarren kostu ekonomikoa erdi bana ordainduko dute GALDAKAOKO UDALAK eta Bizkaiko Foru Aldundiak.

A3932 linearen 2023-2027 ekitaldietarako defizita kalkulatuz zehaztu da kostu hori, izan ere, Espainiako ekonomiaren desindexazioari buruzko martxoaren 30eko 2/2015 Legea garatzen duen otsailaren 3ko 55/2017 Errege Dekretuaren arabera egokientzat jotzen den irizpidea da.

A3932 linea (Galdakao-Boluetako Metroa) indartzeko proposamenak dakarren defizita kalkulatzeko kontuan hartuko da Nerbioi-Arratia-Durangaldea emakidaren preskripzio teknikoen pleguan xedatutakoa. Hau da, aipatutako zerbitzua emateko ezarri diren kilometro teorikoetatik abiatuta, zeinei Gobernu Kontseiluaren Erabaki bidez onetsitako indarreko ibilitako kilometroko prezioa aplikatzen zaien, operazio-kostua kalkulatzen da. Zerbitzuaren kostua eskuratzeko, batuketa egin behar da aipatutako operazio-kostuaren eta A3932 linea ezartzeak dakarren baliabideen gehikuntzaren ondoriozko inbertsio-kostuaren artean.

Bestalde, diru-sarrera garbien % 30 estaliko dela kalkulatu da; beraz, hitzarmen honen xede den linearen defizita ondokoak zehaztuko du: diru-sarrera garbien eta zerbitzuaren kostuaren arteko aldeak. Zerbitzuaren kostua alderdiek ordainduko dute erdi bana (% 50).

A3932 linea Bizkaibus zerbitzuko Nerbioi-Arratia-Durangaldea emakidaren barruan dago. Horrenbestez, Bizkaiko Foru Aldundiak zerbitzua ematen duen sozietate kudeatzaileari kilometro bakoitzeko ordaintzen dion prezioa eta horren eguneraketa ordaintzeko, lehiaketa adjudikatzeko

2. Obligaciones y compromisos económicos asumidos por las partes.

El coste económico que conlleva el refuerzo de la prestación de los servicios será sufragado a partes iguales por el AYUNTAMIENTO DE GALDAKAO y la Diputación Foral de Bizkaia.

Dicho coste se determina realizando la estimación del déficit de la línea A3932 para los ejercicios 2023 a 2027, por considerarse el criterio más adecuado conforme al Real Decreto 55/2017, de 3 de febrero, por el que se desarrolla la Ley 2/2015, de 30 de marzo, de desindexación de la economía española.

El cálculo del déficit que supone la propuesta de reforzar la línea A3932 Galdakao- Metro Bolueta, se calculará de conformidad con lo establecido en el pliego de prescripciones técnicas de la Concesión Nerbioi- Arratia- Durangaldea. Esto es, partiendo de los kilómetros teóricos que se establecen para la prestación del servicio de referencia, a los que se aplica el precio por kilómetro recorrido vigente aprobado mediante Acuerdo de Consejo de Gobierno, se calcula el coste de operación. El coste del servicio se obtiene por la suma del coste de operación mencionado más el coste de inversión por el incremento de medios que supone el establecimiento de la línea A3932.

Por otro lado, se considera una cobertura de los ingresos netos del 30%, por tanto el déficit de la línea objeto de este convenio vendrá determinado por la diferencia entre los ingresos netos y el coste del servicio, que será sufragado en un 50% por cada una de las partes.

Dado que la citada línea A3932 se configura como una línea de la concesión denominada Nerbioi-Arratia-Durangaldea del Servicio Bizkaibus, el precio kilómetro que se abona a la sociedad gestora prestataria del servicio por parte de la Diputación Foral de Bizkaia y su actualización deben realizarse

oinarri gisa erabili zen baldintza-agirian xedatuta dagoenari jarraituko zaio.

Hori dela eta, arestian adierazitakoa dela bide, eta II. Eranskin gisa erantsi den Memoria Ekonomikoan zehaztutakoa kontuan hartuta, GALDAKAOKO UDALAK jarraian aipatutako zenbatekoak ordainduko dizkio Nerbioi-Arratia-Durangaldea emakida kudeatzen duen sozietateari:

- 2024. urtean ordaindu beharreko zenbatekoa 19.030,09 € izango da.
- 2025. urtean ordaindu beharreko zenbatekoa 19.474,51 € izango da.
- 2026. urtean ordaindu beharreko zenbatekoa 20.018,43 € izango da.
- 2027. urtean ordaindu beharreko zenbatekoa 20.426,49 € izango da.

Hitzarmenak irauten duen urte bakoitzari dagokion zenbatekoaren ordainketa GALDAKAOKO UDALAK egingo du dagokion urtearen apirilaren 1etik maiatzaren 30era bitartean. Hau da, 2024. urteari dagokion ordainketa 2024ko apirilaren 1etik maiatzaren 30era bitartean egingo du.

Bestalde, Galdakaoko Udalak urteko ordainketa egin izanaren justifikazioa igorri beharko dio Bizkaiko Foru Aldundiari ordainketa egiten duenetik hilabeteko epean.

Hitzarmen hau luzatzea adosten baldin bada, luzapen horretan ezartzen den urte bakoitzeko zenbatekoa dagokion luzapen-erabakian zehaztuko da, hitzarmen honen xede den linearen defizitaren kalkuluaren arabera, zeina luzapenari erantsiko zaion memoria ekonomikoan ezarriko den.

de acuerdo a lo dispuesto en el pliego que sirvió de base para la adjudicación del concurso.

Es por ello que, de conformidad con lo expuesto anteriormente y detallado en la Memoria Económica que se adjunta como Anexo II, se acuerda establecer las siguientes cantidades anuales a abonar por el AYUNTAMIENTO DE GALDAKAO a la sociedad gestora de la concesión Nerbioi-Arratia-Durangaldea:

- Para el año 2024, la suma a abonar asciende a la cantidad de 19.030,09 €.
- Para el año 2025, la suma a abonar asciende a la cantidad de 19.474,51 €.
- Para el año 2026, la suma a abonar asciende a la cantidad de 20.018,43 €.
- Para el año 2027, la suma a abonar asciende a la cantidad de 20.426,49 €.

El abono correspondiente a cada uno de los años de duración del convenio se realizará por parte del AYUNTAMIENTO DE GALDAKAO entre los días 1 de abril y 30 de mayo del año correspondiente. Esto es, el abono correspondiente al año 2024 se realizará entre los días 1 de abril y 30 de mayo de 2024.

Es obligación del ayuntamiento de Galdakao justificar ante la Diputación Foral de Bizkaia la realización del abono de dichas cantidades en el plazo de un mes a partir de la realización del mismo

En caso de que se acuerde una prórroga del presente convenio, el importe anual por cada uno de los años que se fije en dicha prórroga se determinará en el acuerdo de prórroga correspondiente en función del cálculo del déficit de la línea objeto de este convenio según se establezca en la correspondiente memoria económica de la prórroga que se adjunte a la misma.

3. Alderdiek beren gain hartutako betebehar eta konpromisoak ez betetzeagatiko ondorioak.

Hitzarmen hau sinatzen duen alderdietako batek aurreko klausulan jasotako betebeharrak eta konpromisoak ez baditu betetzen, hitzarmena iraungiko da, eta ordura arte hartutako betebeharren likidazio ekonomiko eta administratiboa egingo da.

4. Hitzarmena betearaztearen eta alderdiek beren gain hartutako konpromisoen jarraipen, zaintza eta kontrolerako mekanismoak.

4.1. Jarraipen eta Kontrol Batzordea

Jarraipen eta Kontrol Batzordeak, zeina erakunde sinatzaile bakoitzeko bi ordezkarik osatuko duten, bitartekari gisa jardungo du alderdi sinatzaileak elkarlanean aritu daitezen eta, bestetik, hitzarmena gauzatzean sor daitezkeen arazoak konpontzeko eta hartutako konpromisoak betetzeko jarraipena eta kontrola egiteko.

Honako hauek osatuko dute jarraipen-batzorde hori:

- Bizkaiko Foru Aldundiaren aldetik, Garraio zuzendari nagusiak edo beraren ordez eginkizun hori beteko duen pertsonak (batzordeburua izango da) eta Garraio zuzendariorde nagusiak edo beraren ordez eginkizun hori beteko duen pertsonak.

- GALDAKAOKO UDALAREN aldetik, hauek osatuko dute batzorde hori: Hirigintzako zinegotziak eta Mugikortasun Iraunkorreko

3. Consecuencias por incumplimiento de las obligaciones y compromisos asumidas por las partes

El incumplimiento de las obligaciones y compromisos asumidos por alguna de los firmantes y recogidas en la cláusula anterior será causa de resolución del presente convenio. La resolución del convenio dará lugar a la liquidación económica y administrativa de las obligaciones contraídas hasta ese momento en los términos previstos en la cláusula 8ª del presente contrato.

4. Mecanismos de seguimiento, vigilancia y control de ejecución del convenio y de los compromisos adquiridos.

4.1. Comisión de Seguimiento y Control

La Comisión de Seguimiento y Control, compuesta a partes iguales por dos representantes de cada institución firmante, será el cauce para la cooperación entre las partes firmantes y para la resolución de los problemas de interpretación y seguimiento y control de la ejecución del convenio y del cumplimiento de los compromisos asumidos.

La composición de la comisión será la siguiente:

- Por parte de la Diputación Foral de Bizkaia, integrarán dicha Comisión el/la director/a General de Transportes o persona que le supla en el ejercicio de esta función, que ejercerá las funciones de presidencia, y el/la Subdirector/a General de Transportes o persona que le supla en el ejercicio de esta función.

- Por parte del AYUNTAMIENTO DE GALDAKAO, integrarán dicha Comisión el Concejal de Urbanismo y la Concejal de Movilidad Sostenible o las personas que les

zinegotziak edo haien ordez eginkizun horiek beteko dituzten pertsonak.

Batzordeburuak deialdia egiten duenean bilduko da batzordea, bi alderdietako edozeinek eskatuta.

Erabakiak aho batez hartuko dira.

Adostutako jarduketak egiaztatzeko akta egiteko ardura izango du batzordeak hitzarmenaren indarraldia bukatutakoan.

4.2. Zerbitzuaren aldizkako jarraipenaren kontrola

Bizkaiko Foru Aldundiak zerbitzuaren aldizkako jarraipena egingo du Nerbioi-Arratia-Durangaldea emakidaren preskripzio teknikoen pleguan xedatutakoa betez, hitzarmenaren egikaritzea behar bezala kontrolatzen dela bermatzeko.

5. Hitzarmena aldatzeko araubidea.

Alde sinatzaileek aho batez hartutako erabakia beharko da, baita dagokion espedientea aldez aurretik hitzartuta egotea ere, hitzarmena aldatzeko.

Espediente horretan, nahitaez egin beharko da justifikazio-txosten tekniko bat, zeinean aztertuko baitira hitzarmenaren premia eta egokitasuna, eragin ekonomikoa eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean edo hura ordezten duen arauan aurreikusitakoa betetzea.

suplan en el ejercicio de estas funciones.

La comisión se reunirá cada vez que sea convocada por la presidencia, a petición de cualquiera de las partes.

Los acuerdos se adoptarán por unanimidad.

Será responsabilidad de la comisión la elaboración de la pertinente acta de comprobación de las actuaciones acordadas a la finalización de la vigencia del convenio.

4.2. Control del seguimiento periódico del servicio

La Diputación Foral de Bizkaia hará el seguimiento periódico del servicio de conformidad con lo establecido en el pliego de prescripciones técnicas de la Concesión Nerbioi-Arratia-Durangaldea, que garantice el control efectivo de la ejecución del convenio.

5. Régimen de modificación del convenio

La modificación del convenio requerirá acuerdo unánime de las partes firmantes y la previa tramitación del correspondiente expediente.

En el mencionado expediente, necesariamente deberá emitirse informe técnico justificativo en el que se analice sus necesidad y oportunidad, su impacto económico y el cumplimiento de lo previsto en la Ley 40/2015 de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del sector público, o norma que le sustituya.

6.- Hitzarmenaren indarraldia

Hitzarmen hau 2020ko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean eta 2023ko abenduaren 31ra arte egongo da indarrean.

Hitzarmen hau behin baino ez da berariaz luzatu ahalko. Luzapen hori ezin izango da lau urte baino gehiagokoa izan. Nolanahi ere, hitzarmena iraungi egingo da Nerbioi-Arratia-Durangaldea izeneko egungo emakida eta horren balizko luzapenak amaitzen direnean.

Luzapen bakar hori adostea bidezkoa izango da, baldin eta hitzarmena adostea ekarri zuten inguruabarrek irauten badute, salbu eta hitzarmenaren indarraldia amaitu baino bi hilabete lehenago alderdiren batek hura bertan behera uztea berariaz eskatzen badu.

7. Hitzarmena azkentzea

Hitzarmen hau hitzarmenaren xede diren jarduerak ez betetzeagatik edo ebazteko arrazoiren batengatik azkenduko da.

Azkentzeko arrazoiak hauek izango dira:

- Indarraldia bukatzea hitzarmena luzatzeko erabakirik hartu gabe.
- Alde guztiek aho batez hartutako erabakia.
- Aldeetako batek bere gain hartutako betebehar eta konpromisoak ez betetzea.
- Deuseztasuna adierazteko epaileak

6.- Plazo de vigencia del convenio

El presente convenio entrará en vigor el 1 de enero de 2024 y extenderá su vigencia hasta el 31 de diciembre de 2027.

El Convenio podrá prorrogarse de manera expresa por una sola vez y por un periodo determinado no superior a 4 años. En cualquier caso, el convenio se extinguirá con la finalización de la concesión actual denominada Nerbioi-Arratia-Durangaldea y sus posibles prórrogas.

Procederá acordar esta única prórroga siempre que subsistan las mismas circunstancias que dieron origen a la implantación de este convenio y salvo denuncia expresa de las partes manifestada con dos meses de antelación a la fecha de finalización de vigencia del convenio.

7. Extinción del convenio

El presente convenio se extinguirá por el cumplimiento de las actuaciones que constituyen su objeto o por incurrir en causa de resolución.

Serán causas de resolución:

- El transcurso del plazo de vigencia sin haberse acordado la prórroga del mismo.
- El acuerdo unánime de todas las partes.
- El incumplimiento de las obligaciones y compromisos asumidos por alguna de las partes.

hartutako erabakia.

- Zerbitzu publikoak kudeatzeko egungo kontratua edo haren luzapenak amaitzea.
- A3932 *Galdakao-Metro Bolueta* linearen zerbitzua justifikatzen duten inguruabarrak desagertzea, zehazki, Metro Bilbaoren 5. linearen luzapenak Galdakao udalerria eta Metro Bilbaoren garraio-sarearekin lotzea dakarrenean.
- Legean ezarritako beste edozein arrazoirengatik.

- Por decisión judicial declaratoria de nulidad.
- Por la finalización del actual contrato de gestión de servicio público o sus prórrogas.
- Por la desaparición de las circunstancias que justifican el servicio de la línea A3932 *Galdakao – Metro Bolueta*, en concreto, cuando la prolongación de la línea 5 de Metro Bilbao de cobertura a la conexión entre el término municipal de Galdakao y la red de transporte de Metro Bilbao.
- Por cualquier otra causa prevista en las leyes.

8. Hitzarmena azkentzearen ondorioak

Hitzarmena azkenduta, likidazioa egingo da, alderdi bakoitzak bere betebeharrak eta konpromisoak bete dituen aztertzeko.

Hala ere, hitzarmena azkentzeko arrazoietako bat dagoenean betearazteko jarduerak badaude, aldeek, hitzarmenaren Jarraipen eta Kontrol Batzordeak proposatuta, erabaki ahal izango dute egiten ari diren jarduerekin jarraitu edo ez, eta egokitzat jotzen dituzten jarduketak burutu. Horretarako, luzatu ezin den hiru hilabeteko epea ezarriko dute, eta hori igarotakoan, jarduerei dagokien likidazioa egin beharko da hitzarmen honetan zehaztutako baldintzetan.

8. Efectos de la resolución del convenio

Resuelto el convenio, se llevará a cabo su liquidación con el objeto de determinar el cumplimiento de las obligaciones y compromisos de cada una de las partes.

Si cuando concurra cualquiera de las causas de resolución del convenio existen actuaciones en curso de ejecución, las partes, a propuesta de la Comisión de Seguimiento y Control, podrán acordar la continuación y finalización de las actuaciones en curso que consideren oportunas, estableciendo un plazo improrrogable de tres meses para su finalización, transcurrido el cual deberá realizarse la liquidación de las mismas en los términos establecidos en el presente convenio.

9. Alderdien laguntzeko betebeharra

Alderdiek hitzematen dute Bizkaiko Foru Aldundiak

9. Obligación de colaboración de las partes

Las partes se comprometen a colaborar en las

xede horretarako egin ditzakeen kontrol-eginkizunetan lagunduko dutela, bai hitzarmenaren kudeaketa-saileko organoen bidez, bai Ogasun eta Finantza Sailaren kontrol-organoaren bidez.

funciones de control que al efecto pudiera llevar a cabo la Diputación Foral de Bizkaia, bien a través de los órganos del Departamento gestor del convenio, bien del órgano de control del Departamento de Hacienda y Finanzas.

10. Datu pertsonalen babesa.

Akordio hau sinatu duten alderdiek hitzematen dute bete egingo dutela Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan (datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa eta 95/46/EE Zuzentaraua indargabetzen duena), hau da, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrean, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan eta arlo horretan aplikatu beharreko gainerako araudian xedatutakoa.

10. Protección de datos de carácter personal

Las partes firmantes se comprometen a cumplir con lo dispuesto en el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos y por el que se deroga la Directiva 95/46/CE (Reglamento general de protección de datos), en la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales, y demás normativa aplicable en la materia.

11.-Berdintasuna

Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan indarrean dagoen araudiaren arabera. alderdi sinatzaileek emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko konpromisoa hartzen dute lankidetza-hitzarmen hau behar bezala betetzeko egin behar diren jarduera guztietan.

11.-Igualdad

De acuerdo con la normativa vigente en materia de igualdad de mujeres y hombres. las partes firmantes se comprometen a promover la igualdad de mujeres y hombres en todas aquellas actuaciones que se precisen desarrollar para el adecuado cumplimiento del presente convenio de colaboración.

## 12. Araubide juridikoa

Hitzarmen honek izaera administratiboa du, horrela xedatzen baita urriaren 1eko Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen atariko tituluaren VI. kapituluan.

Hitzarmen honetan aurrez ikusten ez diren gai guztietan hauek aplikatu beharko dira: Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa; Bizkaiko Foru Aldundiaren 169/2014 Foru Dekretua, abenduaren 16koa, zeinaren bidez Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontuei buruzko Araudi Orokorra onesten den, Aurrekontuei buruzko Foru Arauaren testu bategina garatzen duena, eta aplikatu beharreko gainerako xedapen guztiak.

Jarraipen eta Kontrol Batzordean ebatzi ezin diren kontuak administraziorekiko auzien jurisdikzioaren menpe jarriko dira, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak ezarritakoari jarraiki.

## 12. Régimen jurídico

Este Convenio tiene carácter administrativo conforme a lo dispuesto en el Capítulo VI del Título Preliminar de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

Para todo lo no previsto en el presente convenio será de aplicación la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 169/2014, de 16 de diciembre, por el que se aprueba el Reglamento General Presupuestario del territorio Histórico de Bizkaia, de desarrollo del Texto Refundido de la Norma Foral General Presupuestaria, así como cualquier otra disposición que pudiera resultar de aplicación.

Las cuestiones que no puedan ser resueltas en la Comisión de Seguimiento y Control se someterán a la jurisdicción contencioso-administrativa, conforme a lo dispuesto en la Ley 29/1998, de 13 de julio, Reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.

## I ERANSKINA

Galdakao eta Metro-Bolueta arteko bidaiarien garraio-zerbitzuak, Nerbioi-Arratia-Durangaldea emakidaren A3932 lineak emango duenak, ordutegi eta ibilbide hauek ditu:

## ANEXO I

El itinerario y el horario del servicio de transporte público de personas viajeras entre Galdakao y Metro Bolueta a realizar por Nerbioi-Arratia Durangaldea mediante la línea A3932 y que se acuerda en el presente convenio son los siguientes:

Ibilbidea:

Itinerario:

| LINEA A3932 | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| Ibilbidea<br>Ruta | Hurrenkera<br>Orden | Kodea<br>Código | Describapena<br>Descripción | Udalerria<br>Municipio | Aldea<br>Zona |
| Galdakao- Metro Bolueta | | | | | |
| | 1 | 48036027 | Udaletxea/Ayuntamiento | GALDAKAO | 2 |
| | 2 | 48036047 | Anbulatorioa | GALDAKAO | 2 |
| | 3 | 48036056 | Urreta | GALDAKAO | 2 |
| | 4 | 48036042 | Sixta Barrenetxea | GALDAKAO | 2 |
| | 5 | 48036059 | Bengoetxe - La Troka | GALDAKAO | 2 |
| | 6 | 48036036 | Olabarrieta (Poblado Firestone) | GALDAKAO | 2 |
| | 7 | 48036016 | Aperribai | GALDAKAO | 2 |
| | 8 | 48020140 | Metro Bolueta | BILBAO | 1 |

Ordutegia:

- Errefortzuko autobus bat jarriko da 07:15 eta 08:15ean Galdakaotik egiten diren irteeretan; errefortzua astelehenetik ostiralera egingo da (lanegunetan), urte osoan, abuztuan izan ezik.

Horario:

- Expediciones de refuerzo a las 7:15 y 8:15 salida de Galdakao de lunes a viernes laborables durante todo el año, excepto en el mes de agosto.

II. ERANSKINA

GALDAKAOKO UDALAREN ETA BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN ARTEKO HITZARMENAREN MEMORIA EKONOMIKOA; HITZARMEN HORREN BIDEZ GALDAKAO ETA METRO BOLUETA ARTEKO IRTEEREN KOPURUA ZABALTZEN DA

1 Galdakaoko Udalak ordaindu behar duen kostu ekonomikoaren kalkulua

A3932 Galdakao – Metro Bolueta linea 7:15etako eta 8:15etako espedizioetan Galdakaoko irteeran indartzeko proposamenak, astelehenetik ostiralera eta lanegunetan, urte osoan zehar abuztuan izan ezik, linea horren kostu ekonomikoa handitzea dakar.

2024ko, 2025eko, 2026ko eta 2027ko ekitaldietarako kostu hori zehazteko, aipatutako ekitaldietan erreferentziako zerbitzua emateko ezartzen diren kilometro teorikoetatik abiatzen gara. Kilometro teoriko horiek honako hauek dira:

- 2024ko ekitaldia: 3.796,82 km
- 2025eko ekitaldia: 3.796,82 km
- 2026ko ekitaldia: 3.846,56 km
- 2027ko ekitaldia: 3.813,40km

ANEXO II

MEMORIA ECONÓMICA DEL CONVENIO ENTRE EL AYUNTAMIENTO DE GALDAKAO Y LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA PARA REFORZAR EL NÚMERO DE SALIDAS ENTRE GALDAKAO Y METRO BOLUETA

1. Cálculo del coste económico a sufragar por el Ayuntamiento de Galdakao

La propuesta de reforzar la línea A3932 Galdakao – Metro Bolueta en las expediciones de las 7:15 y 8:15 salida Galdakao de lunes a viernes laborables durante todo el año excepto en el mes de agosto supone un incremento del coste económico de la citada línea.

Para determinar dicho coste para los ejercicios 2024, 2025, 2026 y 2027, partimos de los kilómetros teóricos que se establecen para la prestación del servicio de referencia en los citados ejercicios y que ascienden a:

- Ejercicio 2024: 3.796,82 km
- Ejercicio 2025: 3.796,82 km
- Ejercicio 2026: 3.846,56 km
- Ejercicio 2027: 3.813,40 km

2024

A3932: 001 Galdakao-Metro Bolueta

Nerbioi - Arratia - Durangaldea

Refuerzos/Errefortzuak

| Refuerzo | Tipo Día | Num. días | Km. Ida | Trayec. Ida | Km. Vta. | Trayec. Vta. | Km. Refuerzo |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Refuerzo 1 | Laborable | 229 | 8,29 | 2,00 | 0,00 | 0,00 | 3.796,82 |

2025

A3932: 001 Galdakao-Metro Bolueta

Nerbioi - Arratia - Durangaldea

Refuerzos/Errefortzuak

| Refuerzo | Tipo Día | Num. días | Km. Ida | Trayec. Ida | Km. Vta. | Trayec. Vta. | Km. Refuerzo |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Refuerzo 1 | Laborable | 229 | 8,29 | 2,00 | 0,00 | 0,00 | 3.796,82 |

2026

A3932: 001 Galdakao-Metro Bolueta

Nerbioi - Arratia - Durangaldea

Refuerzos/Errefortzuak

| Refuerzo | Tipo Día | Num. días | Km. Ida | Trayec. Ida | Km. Vta. | Trayec. Vta. | Km. Refuerzo |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Refuerzo 1 | Laborable | 232 | 8,29 | 2,00 | 0,00 | 0,00 | 3.846,56 |

2027

A3932: 001 Galdakao-Metro Bolueta

Nerbioi - Arratia - Durangaldea

Refuerzos/Errefortzuak

| Refuerzo | Tipo Día | Num. días | Km. Ida | Trayec. Ida | Km. Vta. | Trayec. Vta. | Km. Refuerzo |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Refuerzo 1 | Laborable | 230 | 8,29 | 2,00 | 0,00 | 0,00 | 3.813,40 |

A3932 linea sartuta dagoen emakidarako indarrean dagoen kilometro bakoitzeko prezioa 2023koa da, Gobernu Kontseiluaren 2023ko urriaren 26ko

El precio por kilómetro recorrido vigente para la concesión en la que está integrada la línea A3932 es el correspondiente a 2023, aprobado mediante

Erabakiaren bidez onartu zena alegia. Prezio hori 4,662607 eurokoa da.

Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Avanza Durangaldea sozietate kudeatzailearen arteko kontratuaren urte anitzeko aurrekontuak, kostuen gehikuntza kalkulatzeko urteko %3ko hazkundea hartzen du erreferentziatzat. Ondorioz, 2024-2027 ekitaldietako prezioak honako hauek izango direla kalkulatzen da:

- 2024ko ekitaldia: 4,802485 €
- 2025eko ekitaldia: 4,946560 €
- 2026ko ekitaldia: 5,094957 €
- 2027ko ekitaldia: 5,247806 €

Acuerdo de Consejo de Gobierno del 26 de octubre de 2023, y es de 4,662607 €.

El presupuesto plurianual del contrato entre la Diputación Foral de Bizkaia y la sociedad gestora Avanza Durangaldea ,S.A., toma como referencia para el cálculo del incremento de costes un crecimiento del 3% anual. En consecuencia, se estima que los precios para los ejercicios 2024-2027 son los siguientes:

- Ejercicio 2024: 4,802485 €
- Ejercicio 2025: 4,946560 €
- Ejercicio 2026: 5,094957 €
- Ejercicio 2027: 5,247806 €

Horrenbestez, lau ekitaldiei dagozkien eragiketa kosturak honako hauek dira:

- EK 2024ko ekitaldia: 18.234,17 €
- EK 2024ko ekitaldia: 18.781,20 €
- EK 2024ko ekitaldia: 19.598,06 €
- EK 2024ko ekitaldia: 20.011,98 €

De tal forma que los costes de operación operación correspondientes a los cuatro ejercicios son:

- CO ejercicio 2024: 18.234,17 €
- CO ejercicio 2025: 18.781,20 €
- CO ejercicio 2026: 19.598,06 €
- CO ejercicio 2027: 20.011,98 €

2024, 2025,2026 eta 2027ko ekitaldietako inbertsio-kostuak kalkulatzeko, % 2ko igoera kalkulatu da, erreferentzia gisa aurreko hitzarmenean 35.428,92 euro iristen ziren 2023ko inbertsio-kostuak hartuta:

- IK 2024eko ekitaldia: 36.137,50 €
- IK 2025ko ekitaldia: 36.860,25 €
- IK 2026ko ekitaldia: : 37.597,46 €
- IK 2027ko ekitaldia: 38.349,41 €

Para el cálculo de los costes de inversión de los ejercicios 2024, 2025, 2026 y 2027 se ha estimado un incremento de un 2%, tomando como referencia los costes de inversión del 2023 que en el anterior convenio ascendían a 35.428,92 euros:

- CI ejercicio 2024: 36.137,50 €
- CI ejercicio 2025: 36.860,25 €
- CI ejercicio 2026: 37.597,46 €
- CI ejercicio 2027: 38.349,41 €

Horregatik guztiagatik, 2024-2027 ekitaldietarako zerbitzuaren kostua honako hau da:

- ZK 2024ko ekitaldia: 54.371,67 €

Por todo ello, el coste del servicio para los ejercicios 2024-2027 asciende a:

- CS ejercicio 2024: 54.371,67 €

- ZK 2025eko ekitaldia: 55.641,45 €
- ZK 2026ko ekitaldia: 57.195,52 €
- ZK 2027ko ekitaldia: 58.361,39 €

Diru-sarrera garbiei dagokienez, hitzarmen hau egiteko arrazoi izan ziren zerbitzuen prestazioa handitzeak dakarren kostu ekonomikoaren % 30eko estaldura hartzen da, eta honako zenbateko hauek hartzen dira kontuan:

- Sarrerak 2024: 16.311,50 €
- Sarrerak 2025: 16.692,44 €
- Sarrerak 2026: 17.158,66 €
- Sarrerak 2027: 17.508,42 €

Aurreko hau guztia kontuan hartuta eta defizita diru-bilketa kostu guztiei kenduz kalkulatzen dela kontuan hartuta, A3932 linearen defizit estimatua lortzen da:

- Defizita 2024ko ekitaldia: 38.060,17 €
- Defizita 2025eko ekitaldia: 38.949,01 €
- Defizita 2026ko ekitaldia: 40.036,86 €
- Defizita 2027ko ekitaldia: 40.852,97 €

Horrenbestez, zerbitzu horiek emateak dakarren kostu ekonomikoa Galdakaoko Udalak ordainduko du % 50ean, eta honako hauek izango dira:

- 2024ko ekitaldia: 19.030,09 €
- 2025eko ekitaldia: 19.474,51 €
- 2026ko ekitaldia: 20.018,43 €
- 2027ko ekitaldia: 20.426,49 €

Hitzarmen honetako zerbitzuak ematearen emaitzako zenbateko horiek ere urte bakoitzeko apirilaren 1etik maiatzaren 30era bitartean ordainduko dira.

- CS ejercicio 2025: 55.641,45 €
- CS ejercicio 2026: 57.195,52 €
- CS ejercicio 2027: 58.361,39 €

En cuanto a los ingresos netos, se considera una cobertura del 30 % del coste económico que supone la ampliación de la prestación de los servicios que motivaron la celebración del presente convenio, que supone las siguientes cantidades:

- Ingresos 2024: 16.311,50 €
- Ingresos 2025: 16.692,44 €
- Ingresos 2026: 17.158,66 €
- Ingresos 2027: 17.508,42 €

Teniendo en cuenta todo lo anterior y que el déficit se calcula restando los ingresos al total de los costes, se obtiene un déficit estimado de la línea A3932 de:

- Déficit ejercicio 2024: 38.060,17 €
- Déficit ejercicio 2025: 38.949,01 €
- Déficit ejercicio 2026: 40.036,86 €
- Déficit ejercicio 2027: 40.852,97 €

De tal forma que, el coste económico que conlleva la prestación de estos servicios será sufragado en un 50 % por el Ayuntamiento de Galdakao y asciende a:

- Ejercicio 2024: 19.030,09 €
- Ejercicio 2025: 19.474,51 €
- Ejercicio 2026: 20.018,43 €
- Ejercicio 2027: 20.426,49 €

El abono de las cantidades anteriores que conllevan la prestación de los servicios del presente convenio se efectuará igualmente entre los días 1 de abril y 30 de mayo de cada año.

| KONTZEPTUA CONCEPTO | KM TEORIKOAK KM TEÓRICOS | PREZIOA PRECIO | 2024 | 2025 | 2026 | 2027 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| KOSTUA ERAGIKETA COSTE OPERACIÓN | 3.796,82 | 4,802485 | 18.234,17 | | | |
| | 3.796,82 | 4,946560 | | 18.781,20 | | |
| | 3.846,56 | 5,094957 | | | 19.598,06 | |
| | 3.813,40 | 5,247806 | | | | 20.011,98 |
| KOSTUA INBERTSIOA COSTE INVERSIÓN | | | 36.137,50 | 36.860,25 | 37.597,46 | 38.349,41 |
| KOSTUA ZERBITZUA COSTE SERVICIO | | | 54.371,67 | 55.641,45 | 57.195,52 | 58.361,39 |
| BILKETA RECAUDACIÓN | | | 16.311,50 | 16.692,44 | 17.158,66 | 17.508,42 |
| DEFIZITA DÉFICIT | | | 38.060,17 | 38.949,01 | 40.036,86 | 40.852,97 |
| GALDAKAOKO UDALA AYUNTAMIENTO DE GALDAKAO | | | **19.030,09** | **19.474,51** | **20.018,43** | **20.426,49** |

2. Kontrol ekonomikoari buruzko txostena eskatzeko memoria.

Hitzarmenaren proiektuaren xedea da Bizkaibusen A3932 Galdakao – Metro Bolueta linean errefortzua jartzea, hain zuzen ere, 07:15 eta 08:15ean Galdakaotik egiten diren irteeretan; errefortzua astelehenetik ostiralera egingo da (lanegunetan), urte osoan, abuztuan izan ezik, 2024, 2025, 2026 eta 2027 urteetan

Galdakaoko Udalak eta Bizkaiko Foru Aldundiak errefortzuko autobusa jarri nahi dute linea horretan, bidaiari-kopurua handia dela eta.

Horregatik, ezinbestekoa da A3932 linearen zerbitzuan errefortzua jartzea.

Zerbitzu horiek emateak dakarren kostu ekonomikoa Bizkaiko Foru Aldundiak ordainduko du % 50ean, eta honako hauek izango dira:

- 2024ko ekitaldia: 19.030,09 €
- 2025eko ekitaldia: 19.474,51 €

2.Memoria de solicitud del informe de control económico

El objeto del proyecto del convenio es reforzar la línea de Bizkaibus A3932 Galdakao – Metro Bolueta en las expediciones de las 7:15 h y 8:15 h salida Galdakao de lunes a viernes laborables durante todo el año excepto en el mes de agosto para los años 2024, 2025, 2026 y 2027.

El Ayuntamiento de Galdakao y la Diputación Foral de Bizkaia están interesados en reforzar la citada línea debido a sus continuos problemas de saturación.

Es por ello que se considera absolutamente necesario reforzar el servicio de la línea A3932.

El coste económico que conlleva la prestación de estos servicios será sufragado en un 50 % por la Diputación Foral de Bizkaia y asciende a:

- Ejercicio 2024: 19.030,09 €
- Ejercicio 2025: 19.474,51 €

- 2026ko ekitaldia: 20.018,43 €

- 2027ko ekitaldia: 20.426,49 €

Bizkaiko Foru Aldundiari egotzi ahal zaion kostua Nerbioi – Arratia – Durangaldean errepide bidezko bidaiarien erabilera orokorreko garraio-zerbitzu publiko erregular eta iraunkorra emateko kudeaketa-kontratuaren barruan dago, eta ez du gehikuntza gehigarririk ekarriko 2024-2027 urteetarako.

Proposatzen den zerbitzua Galdakaoko Udalaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren ekarpenen bidez bakarrik emango da.

- Ejercicio 2026: 20.018,43 €

- Ejercicio 2027: 20.426,49 €

El coste imputable a la Diputación Foral de Bizkaia está incluido dentro del contrato de gestión de servicios públicos de servicio de transporte público regular permanente y de uso general de viajeros por carretera Nerbioi – Arratia – Durangaldea y dicho coste no va a suponer un incremento adicional en el mismo para los años 2024-2027

La realización del servicio propuesto únicamente se va a financiar con las aportaciones a realizar por el Ayuntamiento de Galdakao y la Diputación Foral de Bizkaia.